Abilezia komunikatiboetarako trebakuntza Medikuntzako ikasleengan; elebitasunaren analisia

Virginia Guillen, Naiara Ozamiz, Sonia Ruiz de Azua, Miren Agurtzane Ortiz Jauregi

Sarrera

- Osasun langileen komunikazio-gaitasun egokiak garrantzi handikoak dira. Hainbat ikerketatan frogatu egin da profesionalen eta pazienteen arteko asebetetze handiko harremanek atxikimendu terapeutikoa, gatazken prebentzioa, sintomatologia klinikoen hobekuntza eta oro har osasun-zerbitzuen eraginkortasuna areagotzen dituztela.
- **Entzute aktiboa, enpatia, asertibotasuna eta trebetasun sozialak** garrantzitsuak dira gizarte-harremanetan eta are garrantzitsuagoak osasun-arloan, pazientearen tratamendu egokia eskuratzeko asmoz.

Helburuak

Medikuntzako Graduko hirugarren mailako ikasleekin egindako ikerketan helburu hauek hauek bideratu ditugu:

- Ikasleen entzute aktiboa, enpatia, asertibotasuna eta trebetasun sozialen maila ezagutzea.
- Autoezagutza areagotu
- Aldagai demografiko desberdinak bereiztea: sexua, hizkuntza, adina, zenbatgarren anaia-arreba izatea, Harreman Klinikoa irakasgai honekiko interesa eta espezialitate klinikoekiko interesarekin lotuz.
- Abileziak galtzen direla osasungileen ogibidezko traiektoria aurrera doan ahalean.

Metodoak

Medikuntzako Graduko hirugarren urteko 212 ikaslek borondatez parte hartu zuten. Datu soziodemografikoak bildu ziren.

Prozedura: 4 galdetegien banakako emaitzak hartu ziren Google galdetegien bidezko plataformaren bidez.

Irakasgaiaren amaieran (excel taulan banakako eta taldeko emaitzak) jakinarazten dizkiegu, interpretazioa emanez.

Entzute aktibo, enpatia, asertibitate eta trebetasun sozialei buruzko ikasleen batez besteko emaitzen analisi deskriptiboa eta konparatua egin ziren.

Galdetegiak jaso ondoren, SPSS 21.b datu-basean sartu ziren.

Asmo etiko-legalak: datuak anonimoak ziren. Ez zituzten inongo harremanik irakasgaiaren ebaluaketarekin. Etika Batzordeak ikerketa onetsi zuen.

- Lau alderdi komunikatibo ebaluatu genituen: entzute aktiboa, TECA enpatia, ACDA asertibotasuna eta EHS gizarte-trebetasunak neurtzeko galdetegiak erabili genituen. Medikuntzako Graduko hirugarren mailako ikasleekin egindako aurreko helburuak bideratuz.

- Etika eta Harreman klinikoaren Irakasgaian zehar aurrera eraman genituen ebaluaketak

ENTZUTE ENPATIKOAren TESTA

1) Entzun bitartean, solaskidea ez etetea
2) %100eko arretarekin entzutea
3) Hitzetatik haratago entzutea
4) Bestearen adierazpena errazteko entzutea

TECA (Enpatia kognitiboa eta afektiboa neurtzeko testa)

ESKALAK

Perspektiben hartzea: Beste baten egoeran erreala la irudizko kapazidadea: 6 + 11 + 15+ 17+20+26+29+32

Ulerkortasun emozionala: Beste baten egoera emozionalak, intentzioak detektatzeko 1+7+10+13+14+24+27+31+33

Estres enpatikoa: Beste pertsona batzuen emozioak konpartitzeko kapazidadea 3+5+8+12+18+23+28+30

Poztasun enpatikoa: 2+4+9+16+19+21+22+25

PERZENTILA

94-99 Oso handia

70-39 Handia

31-69 Normala

7-30 Txikia

7-29 Oso txikia

TECA Pertsonalitatearen ezaugarririk ohikoen arteko erlazioa

	AP	CE	EE	AE	TOTAL
Extraversión	0,01	0,05	0,04	-0,21**	0,11
Afabilidad	0,16**	-0,07	0,31**	0,16**	0,21**
Neuroticismo	0,15*	0,05	0,46**	0,19**	0,32**
Responsabilidad	0,02	0,03	0,01	-0,05	0,01
Apertura	0,08	0,10	0,01	0,03	0,08

ACDA (Asertibotasuna) eskala

	Puntuazio zuzena	Perzentilak
Autoasertibitatea Bakoitzak hartutako oinarrizko eskubideak	Lehenengo 20 itemak gehitzen dira	➢50 Estilo **asertiboa** baina heteroasertibitatea <50 bada, estilo **agresiboa** adierazten da, hau da, eskubideak adierazteko modu zuzenegia erabiltzen da, besteen eskubidea kontuan hartu gabe
Heteroasertibitatea Pertsona batek besteen asertibotasuna ulertzeko gaitasuna	Aztekenengo 15 itemak gehitzen dira	➢50 Estilo **heteroasertibo** ona baina autoasertibitatea <50 bada, **mendeko** estilo **pasiboa** adierazten da, hau da modu xumeegian adierazten da.

GIZARTE TREBETASUN SOZIALEN ESKALA (EHS)

- Eskala hau tresna laburra eta erabileerraza da. 33 item dauzka gizarte-trebetasunak neurtzeko eta zenbait arlotako gabeziak atzemateko.
- Eskala horretan zenbat eta puntuazio altuagoa lortu, orduan eta trebetasun sozial eta gaitasun asertibo handiagoa du pertsonak hainbat testuingurutan jarduteko
- GISMERO, E. EHS. Escala de habilidades sociales. TEA Ediciones arg., Madril. 2000.
- Ebaluazioa sei eragiletatik abiatuta egiten da:

1 eragilea. Autoadierazpena egoera sozialetan: zenbait egoera sozialetan bat-bateko adierazpen-gaitasuna neurtzen du.

2 eragilea. Norberaren eskubideen defentsa, kontsumitzailearen ikuspegitik: kontsumo-egoeretan pertsona ezezagunen aurrean edukitzen diren portaera asertiboak eta norberaren balioak neurtzen ditu (adibidez, jende-ilaran inor besteen aurretik pasatzen saiatzen bada).

3 eragi lea. Haserrearen edo desadostasunen adieraztea: besteei ezadostasunak adierazteko erraztasuna edo zailtasuna neurtzen du.

4 eragilea.Ezetz esan eta elkarrekintza bat moztu: elkarrekintza bat eteteko edo komeni den egoeretan ezetz esateko abilezia adierazten du.

5 eragilea. Eskariak egin: nahi den zerbait beste pertsona batzuei eskatzeko erraztasuna edo zailtasuna agerian jartzen du, izan pertsona ezagunak (mesedeak) edo ez (dendari bati kanbioak gaizki eman dizkigula esatea, adibidez).

6 eragilea. Beste sexukoekin elkarrekintza positiboak hasi: beste sexuko pertsonekin bat-batean elkarrekintzak (elkarrizketak hastea, goraipamenak egitea, hitzordu bat eskatzea eta abar) hasteko trebetasuna neurtzen du.

Emaitzak

Medikuntzako Graduko 3. urteko ikasleak (% 34,4 euskaraz eta % 65,6 erdarazko ikasleak). Batez beste, 20,93 urte zituzten. Ikasleen % 27,8 gizonak eta % 72,2 emakumeak. Beste identitate sexuala aukeran zegoen.

Entzute aktiboak trebetasun sozialekin korrelazio handia dauka, batez ere Autoadierazpena egoera sozialetan izeneko faktorearekin.

Etenik egin gabeko entzute aktiboak korrelazio handia dauka Autoadierazpena egoera sozialetan faktorearekin eta beste sexuarekiko Beste sexukoekin elkarrekintza positiboak abiarazteарekin.

Perspektibak hartzeak korrelazio handia dauka autoasertibotasunarekin. Ulerkortasun emozionala korrelazio handia aurkezten zuen beste sexuarekiko elkarreragin positiboekin.

Poztasun enpatikoa, autoasertibotasuna eta autoadierazpena gizarte-egoerekin erlazionatzen zen eta beste sexuarekiko elkarreragin positiboak abiaraztearekin.

Medikuntza Graduko 3. urteko ikasleen profil soziodemografikoa (N=212)

EHU /UPV

Adina	20.93 (2.1)
Generoa	% 27.8 gizonezkoak % 72.2 emakumezkoak
Zenbatgarren anaia zara zu?	% 13.9 seme-alaba bakarra, % 65.6k 2 anaia-arreba eta % 20.5ek 3 anaia-arreba edo gehiago dauzkate.
FRATRIA (Zenbatgarren anai-arreba zaren)	% 61.3 lehenengoak % 33.2 bigarrenak % 5.5 hirugarrenak
Bikotea	%71.1 ezkongabea ; % 28.9k bikotea zuen
Norekin bizi zara?	% 57.1gurasoekin, % 41.1 pisukideekin % 0.9 sortutako familiarerkin % 0.9 bakarrik

- https://docs.google.com/forms/d/1XaEC4yTm29CVYx9fqyu0A5-H0pLLv2UiBJGeGubsOhQ/edit

- Entzute aktiboa faktoreari dagokionez, gizonezkoen artean etengabe entzuteko gaitasuna dago.

  Enpatiari begira, gizonezkoek emakumezkoek baino ulerkortasun emozional handiagoa zuten ($p < 0,05$)

- Emakumeak gizonak baino heteroasertiboagoak dira.
- Ginekologia espezialitatean soilik emakumeek adierazten dituzte lehentasun gehiago.

- Gainerako komunikazio trebetasun guztietan, ez dago desberdintasunik generoen artean, beste karrera batzuetan gertatzen den ez bezala. Izan liteke osasun-hezkuntzak eragin positiboa izatea.
- **Bikotekidea duten pertsonek** poztasun enpatiko handiagoa dute (TECA: enpatia) eta kontrako sexukoekin (EHS) harremanak hasteko erraztasun handiagoa izango dituzte.
- **Jatorrizko familiarekin bizi diren pertsonek** etenik egin gabe entzuteko gaitasun handiagoa dute (Entzute AKTIBOA).

Gizonen eta emakumeen arteko gizarte-trebetasunen desberdintasunik ez zegoen.
Ikasle euskaldunak erdaldunak baino heteroasertiboagoak ziren, (ACDA) galdetegiaren arabera, modu signifikatiboan.



Ikasle erdaldunek profil pasiboagoa dute edo ez dute heteroasertibotasunik eta autoasertibotasunik adierazten



.

Bibliografia

1: Levinson W, Hudak P, Tricco AC. A systematic review of surgeon-patientcommunication: strengths and opportunities for improvement. Patient Educ Couns.2013 Oct;93(1):3-17.

2: Dean M, Street RL Jr. A 3-stage model of patient-centered communication foraddressing cancer patients' emotional distress. Patient Educ Couns. 2014Feb;94(2):143-8.

ENTZUTE AKTIBOA, ENPATIA, ASERTIBOTASUNA ETA TREBETASUN SOZIALEN AZTERTZE PROIEKTUA

- Proiektua irekita daukagu, printzipioz , 6. mailako ikasleak ebaluatuko ditugu baita abilezia komunikatiboak neurtu ahal izateko.
- Egileekin harremanetan jarri ginen.
- Era berean, testak ingeleseratuta dauzkagu.
- Beste populazio bat neurtu nahi baduzue prest gaude kolaboratzeko

- Eskerr